



II. XENDAPEDALAK MENDI BIZIKLETA MARTXAKO OHARRAK

1. Xendapedalak Mendi Bizikleta Martxako **irteera 2021eko azaroaren 20ean** izango da herriko plazatik hasita goizeko 9:00etan.
2. Martxak bi ibilbide izango ditu: 27km 950m+ eta 36km 1600m+; **ibilbide motzaren (Itsasondora arte) muga ordua** 11:45 arte izango da beraz, bertara beranduago iritsiz gero ibilbide motza egin beharko daderrigorrez.
3. **Bi anoa gune** egongo dira ibilbideetan zehar, bata 14. kilometroan eta bestea, ibilbide luzeari bakarrik dagokiona, 25. kilometroan. Helmugara iristean hamaiketako izango da herriko plazan.
4. **Martxaren ondoren oparien zozketa** izango da. Horretarako dortsalarekin zozketa gunera gerturatu eta taulan zure zenbakia bilatu. Dorsalak ez dira itzuli behar.
5. Ingurumena errespetatzeko asmotan gune guztietan aurkitzen diren **zabor ontziak erabili** zuen zaborra botatzeko.
6. **Xendapedalak Mendi Bizikleta Martxa ez lehiakorra** denez ez da kronometrairik ezta sailkapenik ere egongo.
7. **Derrigorrezkoa da homologatutako kaskoa** eramatea ibilbide guztian zehar.
8. Covid-19ak oraindik gure artean jarraitzen duenez, **musukoaren erabilera** derrigorrezkoa da jende pilaketak dauden gunetan (anoa eta hamaiketako gunetan, mailota eta dorsalak jasotzeko orduan) eta martxaren hasieran.
9. **Dorsalak eta mailota jasotzeko** aukera azaroak 19an, ostirala, arratsaldeko 17:30etatik 19:30etara eta probaren egunean, azaroak 20ean, goizeko 8:00etatik 8:45era izango da Herri Antzokian. Eskertuko genuke, ahal izanez gero, dorsala eta mailota proba aurreko egunean jasotzea proba egunean pilaketak ekiditeko.
10. Parte hartzaile orok **NAN edota federazio txartela** aurkeztu beharko du dorsala jasotzeko orduan. Beste edonorren dorsala jaso nahi izanez gero haren NAN kopia aurkeztuta nahikoa da.

- 11.** Zuen orientazio eta segurtasuna bermatzeko, **ibilbideak seinaleztatuta** egongo dira banderatzko, bolondres edota zintekin beraz, abisu horiei kasu egin.
- 12.** Antolakuntza ez da kargu egiten ibilbideetatik kanpo dabilen partaideetat.
- 13.** **Herriko guneak** (aparkalekua, bizikleta garbitzeko gunea...) **ere seinaleztatuta** egongo dira.
- 14.** Ibilbideetako zatiren batzuk errepidetik igarotzen dira; adibidez ibilbide luzeak tsasondoko trenbidea zeharkatzen du beraz, langa jetsita badago ez pasa eta **trafiko arauak errespetatu** lehentasunik ezbaituzue!
- 15.** Legorretara norberaren autoan datorrenarentzako **aparkalekua** prestatu da herri sarreran (autobidetik etorrira), seinaleztatua egongo da. Era berean, jakin antolakuntza ez dela arduratuko bertan gerta litekeen ezustekoetaz eta aparkaleku hau eguerdiko 14:00etan itxi egingo dela.
- 16.** Herriko plazan **bizikleten aparkalekua** izango da.
- 17.** **Bizikletak garbitzeko gunea** Legorretako Xendapedalak Bizikleta Parkean kokatuta egongo da, Legorretako tren geltokira bidean.
- 18.** Pandemiaren eraginez edizio honetan **ez da dutxa eta kontsigna zerbitzurik eskainiko.**
- 19.** **Partaide bakoitzaren erantzukizuna** da martxan parte hartzeko sasoi fisikoan egotea eta martxan aurkituko diren zailtasunak gainditzeko trebetasuna izatea.
- 20.** Edozein egoera dela eta, **antolakuntzak eskubidea du ibilbideetan aldaketak egiteko.**
- 21.** Eguraldiak martxa etetea derrigortzen badu, antolakuntzak ez du inongo ardurarik hartuko eta **ez da dirua itzuliko.**
- 22.** **Debekatuta dago beste partaide baten dortsalarekin parte hartzea** (epe barruan aldaketa egin zutenak salbuespen), Pikuk Kirol Klubaren **asegurua ez da honi gerta lekioken ezbeharretaz arduratuko.**
- 23.** **Xendapedalak Bizikleta Martxan parte hartzeak goran aipatutako araudia onartzea derrigortzen du .**
- 24.** **Ibilbidean zehar arazorik gertatuz gero**, ondorengo zenbakiak eskura izatea gomendatzen da: 637 960 183 (Iñigo)/ 616 437 587 (Haritz).
- 25.** **Legorretako Xendapedalak Bizikleta Martxak herri desberdinetako paraieak zeharkatzen ditu. Giroa ere paregabea izango da! Gozatu!**

